



EUSKERA

JAUNGOIKOA ta bere lege donearen ondoren ez da euskaldunak bizi-yago ta sutsuago maite biar duben gauzik bere euskera laztana baño.

Euskera maitatziak berekin dakar Euskal-erri'rako maitetasuna. Izkera zokoratu ta erria maite duela dionaren maitetasuna, ba ez padako maitetasuna da. Añalekoa.

Euskera maite dubena zail izango da gure lur atsegiña ez maitatzia; baña lur ganako naitasun bakarra, izkuntzaren aldeko leiyk gabe-koa, naitasun indar guchikoa izango da, utza.

Euskera'ganako naitasuna ordia, euskera itz egiten azaldu biar da. Euskera zendotzen, indartzen.

Gaitza, zalla dala diote batzuek. Lanari ekin baño len, lan guziyak zallak izaten dira. Bere artan jarduntzen dijoazen bezela zailtasunak alde egiten dute ta geroago ta erreñago arkitzen da guziya.

Ori bera gertatzen da euskerarekin ere. Zayatu itz egiten, zokoratu lenbizo lotzaizunak eraso bizkorki izkerari, ta beste edozer gauzetan bezela, ontan ere, ari ezkeru zailtasunak alde egingo dute ta erreñ azalduko da gure lana.

Bai, baña, diote batzuek, ainbeste antzetara euskeraz itz egiten da; erri batetik bestera izkera ez da berdiña. ¿Nola alkar adierazi?

Egiya da euskera ez dala berdiñ alderdi guzietan itz egiten, erri batzuetatik bestietara chandatzen dala zerbait; ta orretarako euskalzale zintzoak zayatzen dijoaz euskera batutzera, baztar guziyetan euskera bat bakarra itz egin dediñ.

Baña, euskerarekin gertatzen dana ¿ez alda beste izkuntza geyago-
rekin ere gertatzen?

Diyote ordia, euskeraren chandaketa oyekin ezin alkar adierazi du-
tela erri batzuetakoak besteetakoakin.

¿Oso egiya ote da ori? Nik ezagutzen ditut orreatik zenbat *tratala-
ri, peritik peri* dabilzan oyetakuak, eta berai dagokiyena ederki aditzen
dute naiz izan besteak Euskalerriko zernai baztarretakoak.

Gañera ez da arritzeko gauza, izkeran orlako chandaketak egitia
erri batzuetan ta bestietan. Guziyak batian irauteko ain guchi idatzi da.
Idazketak ugari diran lekuetan, nola guziyak era batera irakurtzen du-
ten, alde aldera itz-egĩñ ere guziyak batera egiten dute.

Euskal erriyan ordia, len esan degun bezela, orain arte chit guchi
idatzi da. Gaurko egunian zerbait pizkortzen dijua, orain baditugu
egunariak, idazki mota guzitakoak, baña orain arte utzaren ordekoa
besterik ez.

Naparruan emezortzi garren gizaldian debekatua zegon euskeraz
idaztia ta euskal idazkiak saltzia. Ta alaere oraindik bizi da euskera Na-
parru'ko mendi atsegiñetan.

¿Arritzekoa alda bada errietako izketan chandaketak arkitzia? Ez;
arrigarriyagoa da euskerak, dan bezela dala, oraindik irautia. Nola
arrunt galdu ez dan; ori da, ori, gauza iya ezĩñ chiništu litekena.

Orain beraz euskalzale egiyetakoak egin bear dutena da, jaso ba-
tian ta bestien itz-egiteko erak eta poliki-poliki alkar adierazitzeko
ichuran jarri.

Ez da au batetako lana. Euskeraren gayian egiten diran lanak ez
dira artu biar izkera berri bat sortzeko bezela. Ez ta ere iltako izkuntza
bat pištu biar balitz bezela.

Euskera bizi da. Alegiña naikua egin bada ere ill azitzeko, euskal-
duoak beren utzitasunakin oñ eman badute ere oso aztutzeko, ez da
oraindik, Jainkoari eskerrak, aztu; ez ill ere oraindikakuan. Bizi da
euskera ta bizi dedilla beti.

Ez dira beraz euskeraren aldeko lanak gorputz ill batian egin litez-
ken-bezelakoak izan biar, biziyaerenian baño. Eri, gašo, mintsu arki li-
teke euskera, illa ez ordia.

Orrengatik begiramen aundia biar zayo orain daukagun izkera mo-
tari. Berritu, bai; baña oso berriya egin ez.

¿Zer gertatu liteke berrizaletasun neurrigabekoakin? Lenago ondo
edo gaizki euskeraz mintzatzen diranak ez geyago euskeraz egitia;

ta len egiten ez dutenak ere ez. Ortik izkeraren eriyotza etorri liteke.

Askotan gogoratu izan zaiten gauza da, Eleizako kondairan irakurtzen dan gertaera bat.

Jerusalen'go eleiza lurperatu zan ta Jesukristo gure Jaunak adierazi zuben etzala eleiz artatik arri bat bestiaren gain geldituko.

Juliano gaiztoak gezurtatu nai izan zuben Jesukristo'ren esan egiazko ura ta berriro eleiza jasotzeko asmoa artu zuben.

Orretarako, lur azpian oraindik zeuden orma zarrak purrukatu zituben, ta berriro orma berriak jasotzen asi nai zubenian lur ondotik atera zan su ikaragarriak etziyon utzi. Ta orla gertatu zan, Jesukristo'k esan bezela, arri bat bestien gain ez gelditzia.

Euskera lurperatuba arkitzen bada, oraindik badauzka orma zar batzuben, ondatubak onenian, ichura charrian nai bada; baña orma zarrak or daude.

Ez dira orma zar oyekek purrukatu biar, oyekek gogortu lendabizi, sendotu ta beren gañean jaso gero gure izkerari dagokion jauregi eder apaña.

Ez dezagula lenbizi daukagun piska apurtu ta gero batere gabe gelditu.

M. ARRONIZ

